UTE GETXOKO LOREZAINZA (INBISA Servicios Medio Ambiente, S.A. y "Campezo, Obras y Servicios, S.A.") C.I.F. U-95743332 enpresak egindako ondorengo faktura zerrenda onartzea, jarraian azaltzen den xehetasunarekin, eta dagokion obligazioa aitortzea, ordainketa egiteko agindua emateko, 2018ko ekitaldiko udal aurrekontuaren kontura.

a favor, PNV, PSE-EE (PSOE); 5 votos en contra, PP; 9 abstenciones, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar la siguiente relación de facturas emitidas por la empresa UTE GETXOKO LOREZAINZA (INBISA Servicios Medio Ambiente, S.A. y "Campezo, Obras y Servicios, S.A.") C.I.F. U-95743332, con el detalle con el detalle que a continuación se especifica, reconociendo la correspondiente obligación con cargo al Presupuesto Municipal del ejercicio 2018, para su posterior ordenación de pago.

Faktura zk. N° factura	Fakturaren data Fecha factura	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa (BEZa barne) Importe (iva incluido)
2018/1	2018-01-31 31-1-2018	GETXOKO UDALERRIKO PARKE ETA LORATEGI PUBLIKOAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAK. 2018ko urtarrila. SERVICIOS DE CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LOS PARQUES Y ZONAS AJARDINADAS PÚBLICOS DEL MUNICIPIO DE GETXO . Mes de enero 2018	185.519,14
2018/2	2018-02-27 27-2-2018	GETXOKO UDALERRIKO PARKE ETA LORATEGI PUBLIKOAK KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAK. 2018ko otsaila. SERVICIOS DE CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LOS PARQUES Y ZONAS AJARDINADAS PÚBLICOS DEL MUNICIPIO DE GETXO . Mes de febrero 2018	185.519,14

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

42.- NAMIMAR VISTA, S.L.

42.- APROBACIÓN DE LA

ENPRESAK AURKEZTURIKO
BIRJARTZE-ERREKURTSUA
EBAZTEA. ERREKURTSUA 2017KO
ABENDUAREN 27AN,
UDALBATZAK HARTURIKO 219
ZENBAKIDUN AKORDIOAREN
AURKA JARRI DA. AKORDIO
HORREN ARABERA GETXOKO
UDALEKO TOKIKO GOBERNU
BATZARRAK, 2008KO
ABUZTUAREN 14AN HARTURIKO
665 ZENBAKIDUN AKORDIOA
DEUSEZTZAT JO ZAN (ERRIBERA
KALEKO 35 ZENBAKIAN DAGOEN
ERAIKINA ZAHARBERRITZEKO
OBRAK LEHEN ALDIZ
ERABILTZEKO LIZENTZIA
EMATEN ZUENA).

Proposamena irakurri ondoren Iñaki Gamero hartu du hitza, eta azaldu du PP alderdiak 2008an emandako lizentzia deuseztatzearen alde bozkatu zuela irregulartasunak izan zirelako udal espedientea eta Bizkaiko Foru Aldundiak zeukan espedientea desberdinak zirela egiaztatzean, eta hortik ondorioztatu zen udal espedientea "aldatu" egin zela. Azaldu du PP alderdiak errekurtsua ezeztearen alde egingo duela, baina gobernu taldea kritikatu du kezkagarria iruditzen zaielako irregulartasunak ez dituela gobernu talde honek aurkitu, "txantxuloak" dira bere hitzetan, baizik eta Portu Zaharreko bizilagun batzuek egin dute, kasuan kasuko salaketa aurkeztu dute eta horretan inplikatu dira, eta gobernu taldeak ez du inolako erantzukizunik hartu Fiskaltza aurrean salaketa bat jartzeaz gain; gaur egun ez dago salaketa horri buruzko informaziorik. Dokumentuak zaindu eta lizentziak ikuskatzeari dagokionez gobernu taldeak neurriren bat hartu ote duen galdetu du. Bukatzeko esan du Portu Zaharreko herritarren eta erakunde honen zilegitasuna babesteko

RESOLUCIÓN DEL RECURSO DE
REPOSICIÓN PRESENTADO POR
NAMIMAR VISTA, S.L., CONTRA
EL ACUERDO N° 219, ADOPTADO
POR EL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO DE GETXO EN
SESIÓN CELEBRADA EL DÍA
27.12.2017 (DECLARACIÓN DE
NULIDAD DEL ACUERDO N° 665,
ADOPTADO POR LA JUNTA DE
GOBIERNO LOCAL EL 14.10.2008
SOBRE CONCESIÓN DE LICENCIA
DE PRIMERA UTILIZACIÓN DE
LAS OBRAS DE REHABILITACIÓN
DEL EDIFICIO SITO EN C/RIBERA
N° 35).

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñaki Gamero que explica que el PP votó a favor de la anulación de la licencia otorgada en 2008 debido a las irregularidades que había habido al comprobar que el expediente municipal y el que obraba en la Diputación Foral de Bizkaia eran diferentes, de lo que se deducía que había habido un "cambiao" en el expediente municipal. Anuncia que el PP va a apoyar la desestimación del recurso presentado, pero critica al equipo de gobierno porque les preocupa que no haya sido este equipo el que haya descubierto las irregularidades que califica como "chanchullo", sino que han sido unos vecinos del Puerto Viejo los que han presentado la denuncia correspondiente y han perseverado en ello, sin que el equipo de gobierno asuma ninguna responsabilidad más allá de presentar una denuncia querrela ante la Fiscalía, de la cual a día de hoy no hay información. Pregunta si el equipo de gobierno ha tomado medidas en cuanto a la custodia de documentos y la inspección de las licencias. Finaliza su intervención apoyando la presente

proposamen hau babesten duela, baina nabarmendu du ez dagoela ados gobernu taldeak egin duenarekin.

Enrique Pradak azaldu du bere garaian azaldutako argudioak ez dituela errepikatuko, eta aldeko botoa emango dutela iragarri du.

Joseba Arregik PP alderdiari gogorarazi dio gobernu batek lizentzien eskaerak ebazterakoan aldeko txosten teknikoak hartzen dituela oinarriztat, eta deuseztatu den lehen erabilerako lizentziaren ebazpena eman zenean aldeko txosten tekniko bat hartu zela oinarriztat; horrenbestez, gobernu taldeak zuzen jokatu du. Egia da lizentzia deuseztatu dela herritarrek salaketa aurkeztu dutelako eta kasuan kasuko ikerketa egin delako. Argitu du gaur egun horrelako gertaerak ezin direla jazo maila horretako obren proiektu guztiak euskarri informatikoan aurkezten direlako; horrenbestez, dirudienez gertatu den manipulazioa gaur egun ezinezkoa izango litzateke, baita, kasu honetan bezala, babestutako elementuetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren koordinazioa dela medio ere, ezinezkoa delako bi espediente egotea bi baimen desberdinekin; hori dela eta, lasaitasun mezua helarazi du, adieraziz gobernu taldeak behar bezala jokatu duela. Azalpena bukatzeko adierazi du obra lizentzia ugari ematen direla eta horiek egitean herritarren salaketak egotea ez dela arraroa.

Maite Arraizak azaldu du EH Bilduk gai honetan hartu duen posizioa dagoeneko adierazi dutela. Egoera larria iruditzen zaio, eta bere ustez beharrezko neurriak hartu behar dira

propuesta por la defensa a los vecinos del Puerto Viejo y la legitimidad de esta institución, pero recalando que no están de acuerdo con lo que ha hecho este gobierno.

Enrique Prada indica que no va a reiterar los argumentos expuestos en su momento y anuncia que votarán a favor.

Joseba Arregi recuerda al PP que un gobierno resuelve las peticiones de licencias en base a informes técnicos favorables, y cuando se resolvió la licencia de primera utilización que se ha anulado se hizo en base a un informe técnico favorable, por lo que la actuación del equipo de gobierno ha sido correcta. Es cierto que la anulación de la licencia ha sido fruto de la denuncia de vecinos y de la investigación oportuna llevada cabo. Aclara que hoy día estos hechos no pueden ocurrir porque todos los proyectos de obras de este nivel se presentan en soporte informático por lo que la manipulación que parece que se ha dado ya no podría darse, y además por la coordinación con la Diputación Foral de Bizkaia para elementos protegidos como es el caso, de cara a que no puede haber dos expedientes con dos autorizaciones diferentes, por ello transmite un mensaje de tranquilidad, indicando que el equipo de gobierno ha obrado con la diligencia debida. Finaliza su exposición señalando que no es raro que existan denuncias de vecinos en la ejecución de las numerosas licencias de obras que se conceden.

Maite Arraiza señala que EH Bildu ya ha manifestado su posicionamiento en esta cuestión. Le parece que es una situación grave y que es necesario que se adopten medidas para que una

horrelako egoera bat berriz gerta ez dadin, eta erantzukizunak argitzeko, erakundea ezin delako maila pasiboan geratu horrelako egoeren aurrean.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau jaso du: aldeko 21 boto, EAJ, PP, GUK, PSE-EE (PSOE), Ciudadanos; 4 abstentzio, EH Bildu.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA: Ezetsi egingo da LUCILA CANIVEL CHIRAPOZU andreak, NAMIMAR VISTA, S.L. enpresaren izenean eta ordezkartzan, aurkeztutako berraztertze errekurtsioa, Getxoko Udaleko 2017-12-27ko osoko bilkurako 219. Erabakiaren aurka egina, administrazio orokorreko teknikariaren 2018-03-15eko txostenean azaldutako argudioekin (txostena erabaki honen eranskin gisa eranstean da).

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunei jakinaraziko zaie, eta egokiak diren errekurtsioak adieraziko zaizkie.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikuluan xedatutakoa betez, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ondarearen Zerbitzuari ere.

situación como esta no vuelva a repetirse, y que se clarifiquen las responsabilidades ya que la institución no puede mantenerse pasiva ante este tipo de situaciones.

Sometida la preputa a votación obtiene el siguiente resultado: 21 votos a favor, PNV, PP, GUK, PSE-EE (PSOE), Ciudadanos; 4 abstenciones, EH Bildu.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

PRIMERO: Desestimar el Recurso de Reposición presentado por DÑA. LUCILA CANIVEL CHIRAPOZU, en nombre y representación de la mercantil NAMIMAR VISTA, S.L., contra el Acuerdo nº 219 adoptado por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo en sesión celebrada el día 27.12.17, en base a los argumentos contenidos en el informe de la Técnico de Administración General de fecha 15.03.18, que se adjunta como Anexo al presente Acuerdo.

SEGUNDO: Notificar el presente Acuerdo a los interesados, con indicación de los recursos procedentes.

TERCERO: Dar traslado del presente acuerdo a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 30.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre del Parlamento Vasco por la que se crea la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, así como al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Gai-zerrendaz kanpo, larrialdiko deklarazioa aurrez eginda, beraz, "quorum" zegoela erabakita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan aurreikusi bezala, ondorengo erabakia sartu da:

43.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA: MARTXOAREN 21A, ARRAZA DISKRIMINAZIOAREKIN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

ANIZTASUNAREN ALDE,
DISKRIMINAZIOAREN AURKA

Arraza-diskriminazioaren aurkako nazioarteko eguna martxoaren 21ean ospatzen da, urtero. Egun hartan, 1960an, Hegoafrikako Sharpeville hirian, poliziak tiro egin zuen eta 69 pertsona hil zituen apartheid-aren "Igarotze Legearen" aurka egindako manifestazio baketsu batean. Nazio Batuen Batzar Nagusiak egun hori aldarrikatu zuenean, 1966an, nazioarteko komunitateari dei egin zion arraza-diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko ahaleginak egin zitzaizkion.

2018ko abenduan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 70. urteurrena izango da. Inklusioaren nahiz kultura-artekotasunaren alde egiten duen eta arrazakeriaren aurka dagoen hiri-eredua oinarritzat dituen oinarri etiko eta juridikoa da, eta horren alde egiten dugu lan Getxoko Udalean eta gizarte-erakundeetan, herritarrekin batera.

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir el siguiente acuerdo:

43.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES SOBRE EL 21 DE MARZO: DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA DISCRIMINACIÓN RACIAL.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces,

POR LA DIVERSIDAD, CONTRA LA DISCRIMINACIÓN

El Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial se celebra el 21 de marzo de cada año. Ese día, en 1960, la policía abrió fuego y mató a 69 personas en una manifestación pacífica contra las leyes de pases del apartheid que se realizaba en Sharpeville, Sudáfrica. Al proclamar el Día en 1966, la Asamblea General de Naciones Unidas instó a la comunidad internacional a redoblar sus esfuerzos para eliminar todas las formas de discriminación racial

En diciembre de 2018 se cumple el 70º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, el fundamento ético y jurídico que inspira un modelo de ciudad inclusivo, intercultural y antirracista por el que trabajamos entidades sociales y ayuntamiento Getxo junto a la ciudadanía.

Gaur egun, gero eta bereizkeria, aurreiritzi, arrazakeria eta xenofobia gehiago dago gure artean. Garai honetan ere gaitz horrekiko iragazkorrak diren agenda politikoak egiten ari dira. Immigrazioari eta babesa emateari buruzko eztabaida gogorak eta polarizatuak entzuten ditugu herrialde askotan; eta, era berean, herrialde jakin batzuetako kaleetan, indarkeria, gorroto eta bereizkeria kasuak nabarmen gehitu dira, arrazoi etnikoak direla medio.

Nazio Batuek gogorarazi nahi digute arrazakeriaren aurkako borroka lehenetsuzko gaia izan behar dela gizarte guztietan. Borroka hori lotuta dago genero ikuspegiarekin, gizarteratzearekin, aniztasun funtzionalarekin, aniztasun erlijiosoarekin, sexu-orientazioarekin, belaunaldiarekin... Etorkizunean eztabaidatzeko eta kultur arteko hiriak edukitzeko erronka zehatzak ditugu: nola garatu narratiba zehatzagoa eta argiagoa kultura-aniztasunaren kudeaketaren eta gizarteratzearen arteko loturan, eta nola bermatu berdintasuna "aniztasun" mota guztietan.

Horrez gain, kultura-aniztasuna modu positiboan sustatu beharra dago, baita elkarrekintzan aritzeko tokiak bultzatu ere. Badakigu aurreiritziek eta bereizkeriak aurrera egiteko bide aproposa dutela segregazioa badago edo pertsonen artean harremanik eta elkarrizketarik ez badago.

Duela gutxi, Europako Kontseiluak, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen bitartez (ECRI, ingelesez), Espainiari eskatu zion -2018ko otsailean- "ahalik eta arinen" sortzeko berdintasuna bultzatu eta arrazakeriaren eta intolerantziaren aurkako borroka sustatuko duen erakunde "indartsua eta burujabea". Udala gomendio

Vivimos una época en que se registran niveles cada vez más altos de discriminación, prejuicios, racismo y xenofobia. Una época en la que también las agendas políticas se están haciendo permeables a esta lacra. Asistimos a duros y polarizados debates sobre la inmigración y el refugio en muchos países, y simultáneamente a nivel de la calle en una serie de países se ha producido un notable aumento del nivel de violencia, odio y discriminación motivados por motivos étnicos.

Naciones Unidas nos recuerda que la lucha contra el racismo debe ser una cuestión prioritaria para todas las sociedades. Dicha lucha no puede entenderse aisladamente de las perspectivas de género, inclusión social, diversidad funcional, diversidad religiosa, orientación sexual, generacional... El desafío para el futuro debate y la práctica de las ciudades interculturales es cómo desarrollar una narrativa más explícita y clara sobre la relación entre la gestión de la diversidad cultural y la inclusión, así como garantizar la igualdad en toda la gama de "diversidades".

Además es preciso promover activamente un enfoque positivo en relación con la diversidad cultural y potenciar los espacios de interacción. No podemos desconocer que los prejuicios y la discriminación encuentran un perfecto caldo de cultivo cuando hay segregación o falta de contacto y diálogo entre las personas

Recientemente, el Consejo de Europa a través de la Comisión Europea contra el Racismo y la Intolerancia (ECRI, en sus siglas en inglés) instó a España -febrero 2018- a crear "con urgencia" un organismo "fuerte e independiente" que promueva la igualdad y la lucha contra el racismo y la intolerancia. Esta corporación se suma en el impulso de la citada recomendación.

hori betetzearen alde dago.

Nazio Batuek proposatu dute herritar moduan zeregin aktiboa izan behar dugula, arrazei lotutako aurreiritziak eta jarrera intoleranteak hautsi behar ditugula edo horiek hausten lagundu behar dugula. Giza eskubideen defendatzaileak izan behar dugula eta arrazakeriaren aurka egin behar dugula adierazi du, eta getxoztar guztiei zabaldu nahi diegu proposamen hori.

Egun hau ospatzeko asmoz, bada, Getxoko Udalak eta udalerriko gizarte-erakunde ugari ekintza-programa berezi bat prestatu dute. Programa hori urtean zehar ere gauzatuko da, udalerriko kultur arteko programazioaren barruan eta gizarte-erakundeek berezkoak dituzten ekintzekin batera. Herritar guztiei luzatzen diegu deia parte har dezaten.

MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

Alkateak azaldu du EH Bilduk Kataluniako egoerari buruzko premiazko mozio bat aurkeztu duela, eta, horrenbestez, horren gainean bozkatzeko premiazkoa dela babestea dagokio.

Nerea Guijarrubiak adierazi du EH Bilduren ustez mozio hau Osoko Bilkurara ekartzea ezinbestekoa dela Katalunian izandako azken gertaerak tarteko, esaterako Puigdemont eta beste ordezkari politiko batzuk atxilotzea; horregatik, premiazko gaia dela uste du, alde aurretik egitea ezinezkoa izan delako.

Bozkatu egin da, eta honako hau izan da emaitza: aldeko 24 boto, EAJ, PP, GUK, EH Bildu, PSE-EE (PSOE); aurkako boto 1, Ciudadanos.

Naciones Unidas nos propone tener un papel activo como ciudadanía contribuyendo o rompiendo los prejuicios raciales y las actitudes intolerantes. Es una llamada a convertirnos en personas defensoras de los derechos humanos y la lucha contra el racismo que hacemos extensiva a toda la sociedad getxoztarra.

Para conmemorar esta fecha, el Ayuntamiento de Getxo y un nutrido grupo de entidades sociales del municipio han elaborado un programa de actividades, que tiene su continuación a lo largo del año en el marco de la programación intercultural municipal y en la actividad propia de las entidades sociales. Toda la ciudadanía está llamada a participar y tomar parte.

MOCIONES E INTERPELACIONES

El Alcalde indica que EH Bildu ha presentado una moción de urgencia sobre la situación de Cataluña por lo que procede defender la urgencia para votar sobre la misma.

Nerea Guijarrubia indica que EH Bildu ha considerado necesario traer esta moción al Pleno por los últimos acontecimientos vividos en Cataluña como es la detención de Puigdemont y de otros representantes políticos, razón por la que considera que es un tema urgente dado que no ha sido posible hacerlo con carácter previo.

Se procede a la votación, obteniendo el siguiente resultado: 24 votos a favor, PNV, PP, GUK, EH Bildu, PSE-EE (PSOE); 1 voto en contra, Ciudadanos.

Mozioa premiazkoa dela onartu da, eta alkateak azken mozio gisa aztertuko dutela esan du.

44.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: BIKAINTRASUNAREN SARIAK.

Miguel Iabek ondorengo mozioa irakurri du:

Getxoko Udaleko Talde Popularrak udalerrri honetako ikaslerik onenak saritu nahi ditu. Horretarako "Bikaintasuneko Bekak" izenekoak abian jartzea proposatzen dugu; beka horien bidez ikasle getxotarren egiten duten ahalegina eta dedikazioa aintzatesten da.

Ekimen honen xedea ikasle getxotarren ahalegin akademikoa baloratzea da eta, aldi berean, familiei laguntza ekonomikoa ematea seme-alaben hezkuntzan eta, aldi berean, berriz ere gure seme-alaben hezkuntzarekiko konpromisoa argi uztea.

Beste herri batzuetan ere egiten den bezala, gure proposamenaren arabera beka horiek Lehen Hezkuntzako azken ikasturteko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko bigarren ikasturteko ikasleentzat izango dira; zuzkidura 36.000 eurokoa izango da eta hartzaileak Getxoko ikastetxeetako ikasleak dira, eta baita udalerrian erroldatuta dauden baina, arrazoiak gorabehera, ikasketak beste udalerrri batzuetako ikastetxeetan egiten dituzten ikasleak ere.

Se aprueba la urgencia de la moción y el Alcalde señala que se tratará como última moción.

44.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/PREMIO A LA EXCELENCIA.

Miguel Iabek da lectura a la siguiente moción:

El Grupo Municipal Popular de Getxo quiere premiar a los mejores estudiantes de este municipio. Para ello, proponemos poner en marcha unas "Becas a la Excelencia" en las que se reconoce el esfuerzo y la dedicación de los alumnos getxotarras.

Se trata de una iniciativa para valorar el esfuerzo académico de los alumnos getxotarras, además de ayudar económicamente a la vez, a las familias en la educación de sus hijos, que refleja una vez más nuestro compromiso con la educación y formación de nuestros hijos

Como ya se hace en otras localidades, proponemos que las becas vayan destinadas a alumnos que hayan concluido el último curso de Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y segundo de Bachillerato, con una dotación económica de 36.000 euros destinada a alumnos de centros educativos de Getxo, y también a aquellos alumnos que están empadronados en este municipio pero que por diversas razones se encuentran realizando sus estudios en centros de otras localidades

Beka hauek merezi dituzten ikasleak zeintzuk diren erabakitzeko lana Ikastetxeek burutuko lukete eta ikasketak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleen kasuan, ikasle horiek eurak izango lirateke maila pertsonalean eskabidea aurkeztuko luketenak.

Udaleko Talde Popularraren ustez Udalaren konpromisoa da ikasleen lan hori saritzea, ikasketetan egiten den ahalegina sustatuz. Bekak ematea ekitaldi baten egingo litzateke, beka horien onuradunen izenak jendaurrean azalduta horrela ikasle horien lan itzela eta dedikazio akademikoa aintzatetsiz, hezkuntza gure seme-alaben garapenaren funtsezko zutabeetako delako, eta gaur proposatzen dugun ekimen honekin, sariaren bidez, ikasketen arloko ahalegina eta ikasketa horiekiko konpromisoa sustatzen ditugu.

Horregatik guztiagatik Udaleko Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten dio Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA. "Bikaintasuneko Beka" batzuk ezartzea; horien zuzkidura 36.000 € da. Munta hori 2018ko aurrekontuetan zainpetuko da.

BIGARRENA. Ekimen hau ikastetxeekin konpartitzea; ikastetxeok Udalari beken irabazleei buruzko informazioa emango diote. Halaber, honi guztiari publizitatea ematea Getxon erroldatuta dauden baina kanpoan ikasten duten ikasleek ere parte hartzeko aukera zian dezaten.

HIRUGARRENA. Mozio honi buruzko informazioa ematea udalaren

La labor de determinar los alumnos merecedores de estas becas recaería sobre de los Centros Educativos y en el caso de los alumnos que realizan sus estudios fuera del municipio, serían ellos mismos a título personal quienes presentarían su propia solicitud.

Desde el Grupo Municipal Popular consideramos que se trata de un compromiso por parte del Ayuntamiento, para premiar el trabajo de los alumnos promoviendo sus esfuerzos en los estudios. Mediante un acto se hará entrega de las becas haciendo público los nombres de los beneficiarios de las becas reconociendo así su gran labor y dedicación académica, puesto que la educación es uno de los pilares esenciales del desarrollo de nuestros hijos y con esta iniciativa que proponemos hoy estimulamos mediante la recompensa, su esfuerzo y entrega a los estudios.

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO. Instaurar unas "Becas a la Excelencia", con una dotación de 36.000€, a consignar en los presupuestos 2018.

SEGUNDO. Compartir con los centros educativos esta iniciativa de tal manera que puedan informar al Ayuntamiento de los ganadores de las becas, así como publicarlo para que los estudiantes empadronados en Getxo, que se formen fuera del municipio puedan participar.

TERCERO Que se informe de esta moción en los medios de comunicación

komunikabideetan.

Enrique Olasok azaldu du mozioak zenbait zalantza eragin dizkiola ikasleen errendimendu akademikoari edo errendimendu altuko ikasleei buruzkoa izateari dagokionez, baita neurtzeko moduaren gaineko zalantzak ere. Bere ustez, eskola arrakasta ez da soilik esfortzu kontua; aitzitik, beste faktore batzuen arabera ere bada, esaterako ikasleen gaitasun orokorrak eta zehatzak, familiak eta inguru kulturala, baliabide ekonomikoak, abantaila sozio-ekonomikoak eta motibazioa. Bere ustez, beken politikak lotura izan beharko luke familiaren egoera sozio-ekonomikoarekin, erakunde gehienek egiten duten bezala; horren haritik, hiru proposamen aurkeztu ditu: ikasle guztien artean bikaintasuna sustatzea, ez soilik errendimendu akademiko bikaina dutenen artean; bigarrenik, zailtasun gehien dituzten ikasleen artean arrakasta esperientzia sustatzea; eta, hirugarrenik, estrategia inklusiboak bultzatzea. Babesten duenaren adibide gisa testu bat irakurri ondoren, bukatzeko esan du helburua berdintasun soziala izan behar dela, eta GUK taldea ez dagoela bikaintasunaren aurka, baina beste bide batzuetatik bideratu behar dela uste du, eta horregatik mozioaren aurka bozkatuko dutela esan du.

Oier Iturraldek azaldu du, GUK bezala, EH Bilduk ere mozioaren aurka bozkatuko duela, PPren proposamenak elitismoa bultzatzen duelako, lanbide heziketa baztertzen duelako eta ez duelako argitzen ikastetxeko zuzendaritzari ematen zaion erabakitze modua. Bestalde, ikasleen lehiakortasuna sustatzen dela azaldu du, eta bikaintasunak, berriz,

municipales.

Enrique Olaso indica que la moción presenta una serie de dudas en cuanto si se refiere al rendimiento académico de los estudiantes o a estudiantes de alto rendimiento, y dudas también en cuanto a la forma de medición. Considera que el éxito escolar no sólo se basa en el esfuerzo, sino que depende de más factores, tales como las capacidades generales y específicas de los estudiantes, las familias y el entorno cultural, recursos económicos, ventajas socio-económicas y la motivación. En su opinión la política de becas debería estar relacionada con la situación socio-económica de la familia tal como lo hacen la mayoría de las instituciones, y presenta tres propuestas: estimular la excelencia entre todos los estudiantes, no sólo entre los que tengan un rendimiento académico excelente; en segundo lugar, fomentar la experiencia de éxito entre el alumnado que más dificultades tiene, y en tercer lugar, impulsar estrategias inclusivas. Tras leer un texto como ejemplo de lo que defiende concluye que el objetivo debe ser la igualdad social y que GUK no está en contra de la excelencia, pero cree que hay que encauzarla por otras vías, razón por la que anuncia que votarán en contra de la moción.

Oier Iturralde indica que, al igual que GUK, EH Bildu votará en contra de la moción, porque la propuesta del PP impulsa el elitismo, excluye la formación profesional y no concreta la forma de decisión que se otorga a la dirección del centro escolar. Por otra parte, indica que se fomenta la competitividad del alumnado cuando la excelencia se debe basar en la

lankidetzaz, talde lana, eta eskola inklusibo bidezkoagoa izan behar ditu oinarri.

Keltse Eigurenek azaldu du talde popularrak aurkeztu duen mozioa beste batzuetan ere aurkeztu duela, eta bere garaian ezetsi egin zela; orain aldaketa batekin aurkeztu du, hain zuzen ere ikasi izanaren aitoren horretan kopuru ekonomiko bat gehitzea, hau da bikaintasun beka bat. Bat dator hezkuntzan esfortzuen balioa sustatu behar dela eta ikasteko dedikazioaren ideiarekin; halaber, lan eta ezagutzari balioa eman behar zaie, eta horiek motibazioaren bitartez sustatu behar dira; hala, elkartasuna eta kidetasuna ezinbestekoak dira, eta ez lehiakortasuna sari ekonomiko gisa, proposatzen den moduan. Helburua ikasteko inplikazioa eta esfortzua aitortzea baldin bada, azaldu du hori ez dela emaitza akademikoen bitartez aitortzen. Horrez gain, bere ustez mozioa baztertzaila da erdi mailako heziketa zikloak ikasten ari diren ikasleak ahazten dituelako. Bestalde, ez dago mozioarekin ados mozioaren arabera, hertsiki hartuta, beka hori ikasle mutilei dagoelako zuzenduta, neskak kanpoan utziz, alegia ikasle guztien erdia kanpoan utziz. Azkenik gogoratu du udal gisa ez daukatela hezkuntza arloko eskumenik; aitzitik, gai horretako eskuduna Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da, eta erakunde horrek dagoeneko badauka beka sistema bat finkatuta, nahitaezko hezkuntza ikasten duten ikasle getxotar guztientzako udalak diru laguntzen lerro bat daukan moduan, 150.000 eurokoa, eskola materiala erosteko, eskola alorrean aukera berdintasuna nolabait errazte aldera. Horregatik guztiagatik, eta beste batzuetan bozkatu izan dutenarekin bat etortzeko,

cooperación, trabajo en equipo y en la escuela inclusiva más justa.

Keltse Eiguren señala que el grupo popular presenta una moción que ha sido presentada en varias ocasiones y que fue rechazada en su momento, ahora lo hace con una modificación y es que a ese reconocimiento al estudio se le dote de una cantidad económica y sea una beca a la excelencia. Comparte que en la educación se debe fomentar el valor del esfuerzo y la dedicación al estudio, pero igualmente el valor al conocimiento y al trabajo, los cuales se deben incentivar a través de la motivación, siendo fundamental la solidaridad y el compañerismo, y no la competitividad con una recompensa económica como se propone. Si lo que se pretende es reconocer el esfuerzo y la dedicación al estudio indica que éste no se reconoce a través de las calificaciones académicas. También considera que la moción es discriminatoria porque se olvida del alumnado que cursa algún ciclo formativo de grado medio. Por otro lado, no está de acuerdo con la moción porque a tenor literal de la misma esta beca estaría destinada a alumnos, dejando fuera por tanto a las alumnas y por ende a la mitad del alumnado. Finalmente recuerda que como ayuntamiento no tienen competencias en materia educativa, siendo el departamento de Educación del Gobierno Vasco el competente en esta materia, institución que ya tiene establecido un sistema de becas. Del mismo modo indica que el ayuntamiento tiene una línea de subvenciones para todo el alumnado getxotarra que cursa educación obligatoria, dotado con 150.000 euros destinados a la adquisición de material escolar con la finalidad de facilitar en

aurka bozkatuko dutela iragarri du.

Santiago Sainzek azaldu du paradoxikoa iruditzen zaiola PP alderdiak, hezkuntza murrizketak bandera politiko bihurtu duen alderdiak, eremu horretan grebak ekarri dituen hezkuntza politikarekin Euskadin EAJ babestu duen alderdi politikoak, hezkuntza bekak aurkeztea Getxoko Udalean. Mozioak ez du ezer zehazten eta gai asko erantzunik gabe uzten ditu. Bere ustez helburu ona lortu nahi du, baina idazteko moduak zein lege egokitzapenak zalantzak eragin ditu; horrenbestez, gaiaren muina gehiago landu beharko litzatekeela uste du, eta, horregatik, mozioak ez du Ciudadanos taldearen babesa izango.

Miguel Ibabek Keltse Eigureni erantzun dio gaztelaniazko "alumno" hitza (ikasle mutila) zuzena dela, Espainiako Erret Akademiaren aburuz "alumno" hitzak neskak zein mutilak hartzen ditu. Horrez gain, azaldu du eskola materiala finantzatzeko udal laguntzek ez daukatela loturarik bere taldeak proposatutako bikaintasun bekekin. Halaber, Enrique Olasori zuzenduz esan du GUK taldeak dena elitismoari leporatzen diola, eta Podemos Getxo eta Podemos Cádiz taldeen arteko deskoordinazioa aipatu du, udal horrek bikaintasun bekak onartu dituelako, eta horrek koherentzia falta islatzen du. Bukatzeko esan du PP alderdiarentzat ikasle onak lagundu eta saritzea positiboa dela.

José Luis Landak azaldu du aurkeztutako proposamenean emaitzak

cierta manera la igualdad de oportunidades en el ámbito escolar. Por todo ello y en coherencia al voto efectuado en ocasiones anteriores anuncia que van a votar en contra.

Santiago Sainz señala que se le antoja paradógico que el PP, que ha hecho bandera de su política los recortes en educación y que ha apoyado en Euskadi al PNV que con su política educativa ha generado huelgas en este ámbito, presente unas becas educativas en el Ayuntamiento de Getxo. La moción no especifica nada y deja sin respuesta muchas cuestiones. Cree que busca un buen objetivo, pero tanto su redacción como encaje legal le suscita dudas, por lo que considera que se debería ahondar más en el fondo del asunto, razón por la que la moción no tendrá el apoyo de Ciudadanos.

Miguel Ibabe replica a Keltse Eiguren que el término de alumnos es correcto, ya que según la Real Academia Española aglutina a los chicos y las chicas en igualdad. También le indica que las ayudas municipales para la financiación del material escolar nada tienen que ver con las becas a la excelencia que su grupo propone. Asimismo, responde a Enrique Olaso que GUK todo lo achaca al elitismo y traslada la descoordinación entre Podemos Getxo y Podemos Cádiz, ayuntamiento que ha aprobado unas becas a la excelencia, lo que denota una falta de coherencia. Finaliza indicando que para el PP es positivo ayudar y premiar a los alumnos buenos.

José Luis Landa indica que en la propuesta presentada se premian los

saritzen direla. Azaldu duenez, azterketa enpiriko batzuen arabera maila sozio-ekonomikoen eta emaitza akademikoen arteko lotura garrantzitsua da, baita gurasoen hezkuntza maila eta aukera berdintasunaren printzipioari dagokien ere. Mozioa baztertzaila iruditzen zaio lanbide heziketako ikasleak ere baztertzaren dituelako.

Keltse Eigurenek erantzun du eskola materialeko diru laguntzen lerroa ikasle guztiei zuzenduta dagoela eta baduela lotura komentatzen ari denarekin; laguntza horiek eskola alorreko aukera berdintasuna lantzea dute helburu. Halaber, hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabili behar dela nabarmendu du, bereziki gizarte parekide baterantz kultura aldaketak sustatzeko eta genero ikuspegia daukaten udal politikak garatzeko konpromisoa aho batez hartu duten udal taldeen kasuan.

Enrique Olaso azaldu du eztabaida ez dela ikuspegi pertsonalean kokatu behar, Miguel Ibañek egin duen moduan, Podemoskoa dela esan duenean, Ezker Batukoa dela publikoa baita. Hori alde batera utzita, eztabaida aberastu egin behar dela eta aukera berdintasunean lan egin behar dela ulertzen du.

Miguel Ibañek Espainiako Erret Akademiaren testu bat irakurri du, "alumno" hitza zuzena dela defendatzeko, eta nabarmendu du eskola materialerako diru laguntzak eta mozioan planteatzen dena ez direla gauza bera. Enrique Olaso erantzun dio kontziliazio gai bat nabarmendu duela berriz ere, ezer zehaztu gabe.

resultados. Señala que hay estudios empíricos que destacan que la conexión entre el nivel socio-económico y los resultados académicos es importante, así como el nivel de educación de los padres y madres y el principio de igualdad de oportunidades. También considera discriminatoria la moción porque excluye al alumnado de la Formación Profesional.

Keltse Eiguren responde que la línea de subvenciones para el material escolar destinada a todo el alumnado sí tiene relación con lo que se plantea y que estas ayudas pretenden trabajar en la igualdad de oportunidades en el ámbito escolar. Asimismo, insiste en la necesidad de utilizar el lenguaje inclusivo y no sexista, especialmente los grupos municipales que han asumido el compromiso por unanimidad de desarrollar las políticas municipales con perspectiva de género e incidir en la transmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.

Enrique Olaso indica que el debate no se ha de enmarcar en el ámbito personal como lo ha hecho Miguel Ibañe cuando se refiere a que él milita en Podemos, cuando es público que milita en Izquierda Unida. Al margen de ello considera que se debe enriquecer el debate y trabajar en la igualdad de oportunidades.

Miguel Ibañe lee un texto de la Real Academia Española para defender que el término alumnos es correcto, e insiste en que las ayudas para material escolar no son lo mismo que lo que se plantea en la moción. A Enrique Olaso le responde que únicamente vuelve a insistir en un tema de conciliación, sin concretar nada.

Oier Iturralde azaldu du mozioak ez duela ez hanka, ez bururik, oinarri elitista eta, argi eta garbi, arbitrarioak dituela eta, horrenbestez, EH Bilduk aurka bozkatuko duela.

Mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, aldeko 5 boto (PP), eta aurkako 20 boto (PNV, GUK, EH Bildu, PSE-EE (PSOE), Ciudadanos) lortu dituelako.

45.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ETAKIDEEN OMENALDIAK GAITZESTEA.

Raquel Gonzálezek ondorengo mozioa irakurri du:

Asko izan dira kartzelak utzi dituzten ETako kideen alde azken hil hauetan Euskadiko herri batzuetan antolatu diren omenaldiak eta harrerarekitaldiak.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legearen 4. artikulua, bere b) atalean, honakoa ezartzen du: botere publikoek "neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gorensten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak...".

Omenaldiak egiteko ekitaldietan, orokorrean, talde terrorista horretako

Oier Iturralde indica que la moción no tiene ni pies ni cabeza, que se basa en bases elitistas y claramente arbitrarias, por lo que EH Bildu votará en contra.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, PP; 20 votos en contra, PNV, GUK, EH Bildu, PSE-EE (PSOE), Ciudadanos.

45.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/RECHAZO A LA CELEBRACIÓN DE HOMENAJES A ETARRAS.

Raquel González da lectura a la siguiente moción:

Han sido numerosos los homenajes y actos de recibimiento que se han organizado para los miembros de ETA que han abandonado la prisión en distintas localidades vascas durante los últimos meses.

El artículo 4 de la Ley 4/2008, de la Ley de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, señala en su apartado b) que los poderes públicos "adoptarán medidas apropiadas para garantizar la seguridad, el bienestar físico y psicológico y la intimidad de las víctimas y sus familiares, y en particular, para prevenir y evitar la realización de actos efectuados en público que entrañen descrédito, menosprecio o humillación de las víctimas o de sus familiares, exaltación del terrorismo, homenaje o concesión pública de distinciones a los terroristas...".

Los actos de homenaje, por lo general consisten en un ensalzamiento de

kideak goستن dira eta, biltzeko edo adierazteko eskubideak gaintuz, terrorismoa bera goستن da. Era berean, ekitaldi eta ekintza horietan erakundeen lokalak edo bide publikoa legez kanpo erabiltzen dira harrera eta laguntza adierazteko.

Oraintsu Eusko Legebiltzarrak "ETA talde terroristako kideak diren edo talde horren jarduketei lotuta egon ziren pertsonen egiten zaizkien omenaldiak errefusatzeko" adierazpena egin du.

Horregatik guztiagatik Udaleko Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkezten dio Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak agindua ematen dio Gobernu Taldeari ETA taldeko kideei edo udalerrian ekintza terroristak egiteagatik kondenatuta dauden pertsonen omenaldiak egiteko ekitaldiak eragotzi ditzan.

BIGARRENA. Mozio honi buruzko informazioa ematea udalaren komunikabideetan.

Koldo Iturbek esan du gai hau Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu dela, eta eztabaida hori saihesteko PNV, GUK eta PSE-EE (PSOE) taldeek zuzenketa transakzional bat aurkeztu dutela; Enrique Olasok irakurri du:

Getxoko Udalak, dokumentu honi erantsita dagoen 2018ko otsailaren 22ko legebiltzarreko zeharkako zuzenketaren testuarekin bat egiten du.

1.- Eusko Legebiltzarrak errefusatu egiten

miembros de la organización terrorista, que desbordando los derechos de reunión o libertad de expresión, son expresiones de enaltecimiento del terrorismo. De la misma manera, locales institucionales o la vía pública son utilizados ilegítimamente para esos actos de recibimiento y apoyo.

Recientemente, el Parlamento Vasco ha llevado a cabo una declaración "de rechazo a los homenajes que se realicen a personas pertenecientes a la organización terrorista ETA o que estuvieron vinculadas a sus actuaciones".

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERA El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Equipo de Gobierno para que impida la celebración de actos de homenaje a miembros de la banda terrorista ETA o personas condenadas por actos terroristas en el municipio.

SEGUNDO Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Koldo Iturbe indica que este tema ha sido debatido en el Parlamento Vasco y para evitar ese debate el PNV, GUK y PSE-EE (PSOE) presentan una enmienda transakzional a la que da lectura Enrique Olaso:

El Ayuntamiento de Getxo se adhiere al texto de la enmienda transakzional del parlamento vasco de 22 de febrero de 2018, anexa a este documento.

1.- El Parlamento Vasco manifiesta

ditu pertsoneri egindako omenaldi publikoak, bai ETako kide izan izanagatik, bai helburu politikoak lortzeko bide gisa indarkeria erabili edo justifikatu izanagatik direnean. Omenaldi horiek giza eskubideen defentsaren aurkakoak dira, eta biktimen biktimizazioa dakarte.

2. Eusko Legebiltzarrak gogoratzen du botere publikoek duten betebeharra, halaberharrezkoa eta geroraezina, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketan biktimekiko aitortza, erreparazio eta justizia sentimendua adieraztekoa. Horretarako, jasandako irainak eta eragin lizkiekenak ezabatuz, eta laidoak, umiliazioak eta berbiktimizazioa ekiditeko neurriak hartuz.

3. Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du biktima guztiekiko aitortza eta elkortasuna, eta konpromisoa adierazten du edozein terrorismo motaren justifikazioa, babesa edo gorespena deslegitimatuko duen memoria eraikitzeko.

4. Eusko Legebiltzarrok Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala biktimei dagokien egirako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak goratzen, eta beren babesa indartzen berbiktimizazio mota ororen aurrean.

5. Eusko Legebiltzarrak uste du Memoria eta Bizikidetzaren Ponentzia delako eremu egokiena bertan adostasuna lortzeko, elkartzeko eskubidea edo adierazpen askatasuna gaindituzten dituzten terrorismoa goratzeko adierazpenen sinbologiok eta jarrerak desagertarazteko neurrien inguruan.

6. Eusko Legebiltzarrak uste du

su rechazo a los homenajes públicos que se realicen a personas bien por su condición de pertenecientes a ETA o bien porque utilizaron o justificaron la violencia como medio para conseguir fines políticos. Dichas homenajes son contrarios a la defensa de los derechos humanos y suponen una revictimización por parte de las víctimas.

2. El Parlamento Vasco recuerda la obligación inexcusable e inaplazable de las poderes públicos de garantizar los políticas que expresen el sentimiento de reconocimiento, reparación y justicia debido a las víctimas del terrorismo y de vulneración de derechos humanos, eliminando los agravios sufridos, y los que pudieran provocárseles, y adoptando las medidas que eviten su ofensa, humillación y revictimización.

3. El Parlamento Vasco reitera su reconocimiento y solidaridad hacia todas las víctimas, y se compromete con la construcción de una memoria que deslegitime la justificación, aval o enaltecimiento de toda forma de terrorismo, violencia o vulneración de los derechos humanos.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar desarrollando los derechos de verdad, justicia y reparación que corresponden a las víctimas y a reforzar su protección frente a cualquier forma de re-victimización.

5. El Parlamento Vasco considera que la Ponencia de Memoria y Convivencia es el ámbito adecuado para alcanzar un consenso sobre los medidas orientadas a la desaparición de simbologías y conductas que, desbordando los derechos de reunión o libertad de expresión, son expresión de enaltecimiento del terrorismo.

6. El Parlamento Vasco entiende que

birgizarteratze-printzipioa kantuan hartu beharra dagoela, bizikidetzan ahalik eta normalizatuenerantz aurrera egiteko. Askatasuna kendu dieten pertsonen printzipio hori aplikatu behor zaie, baina zigorra betetzen ari direnean, bai bete ondoren."

Raquel Gonzálezek erantzun du asmoa ez dela Eusko Legebiltzarrean izandako eztabaida errepikatzea, baizik eta gertaeretara joatea eta udal mailan eztabaidatzea udal lokal edo espazio publikoak etakideei omenaldiak egiteko uzteko aukeraren inguruan; horrenbestez, ez du zeharkako zuzenketa onartuko.

Santiago Sainzek zuzenketa gehigarri bat aurkeztu du, eta irakurri egin du:

"HIRUGARRENA.- Getxoko Udalak Parlamentu Nazionalari eskatzen dio alda dezan 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babestekoa, arau-hauste eta zigorren atal bat sartzeko, biktimen eta senideen babesa indartzeko terrorismoa eta terroristak goratzeari dagokionez, horrek zuzenbideko estatu demokratikoaren funtsezko printzipioak zikintzen baititu."

Raquel Gonzálezek erantzun du ez duela onartuko terrorismoa goratzea edo omenaldi baten delitua bezain gauza larri bat administrazio arau-hauste sinple gisa hartzea, eta ez dela gaiaz entzun ere egin nahi ez duten biktima elkarten aurka jarriko, eta, hortaz, ez du zuzenketa onartuko.

Koldo Iturbek hartu du hitza eta esan du gaur aurkeztutako zeharkako

